



## DATU PERTSONALEN BABESA. EZEREZTEKO ESKUBIDEA BALIATZEA / PROTECCIÓN DATOS PERSONALES. EJERCICIO DEL DERECHO DE SUPRESIÓN

| ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA SOLICITANTE      |                                    |   |                                   |
|--|------------------------------------|---|-----------------------------------|
| NAN / DNI <sup>1</sup>                                       | Izen-abizenak / Nombre y apellidos |   | E / M<br>G / H                    |
| Jakinarazpenetarako helbidea / Dirección para notificaciones |                                    |   | Herria / Población                |
| P.K. / C.P.  | Probintzia / Provincia             | Helbide elektronikoa / Dirección electrónica <sup>2</sup> | Telefonoa / Teléfono <sup>2</sup> |

| ORDEZKARIAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE  |                                    |   |                                   |
|---|------------------------------------|---|-----------------------------------|
| NAN / DNI <sup>1</sup>  | Izen-abizenak / Nombre y apellidos |   | E / M<br>G / H                    |
| Ordezkaritza egiaztatzeko dokumentua / Documento acreditativo de la representación <sup>(1)</sup> |                                    |   |                                   |
| Jakinarazpenetarako helbidea / Dirección para notificaciones                                      |                                    |   | Herria / Población                |
| P.K. / C.P.   | Probintzia / Provincia             | Helbide elektronikoa / Dirección electrónica <sup>2</sup> | Telefonoa / Teléfono <sup>2</sup> |

Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorraren 17. artikuluan xedatutakoarekin bat:

De conformidad con el artículo 17 del Reglamento UE 2016/679 General de Protección de Datos (RGPD),

### ESKATZEN DUT

Eskabide hau jaso eta gehienez ere hilabeteko epean ,eta atzerapen bidegaberik gabe, ondoren adierazten diren nire datu pertsonalak ezerezteko erabakia hartzeko; eta niri jakinarazteko, idatziz, zein den egoera ezereztu ondoren.

Era berean, baldin eta tratamenduaren arduradunak beste tratamendu arduradun bati komunikatu badizkio nire datu pertsonalak, eskatzen dut ezereztu egin direla jakinarazteko arduradun horri.

Datuak ezerezteko egindako eskabidea ezin dela gauzatu erabakitzen bada, niri jakinaraztea nahi dut, arrazoituta, hartara, dagokion agintaritzaren aurrean erreklamatu ahal izateko.

### SOLICITO

Que se proceda a acordar la supresión de mis datos personales señalados más adelante sin dilación indebida y como máximo en el plazo de un mes, a contar desde la recepción de esta solicitud, y se me notifique de forma escrita el resultado de la supresión practicada.

Asimismo, en caso de que mis datos personales hayan sido comunicados por ese responsable a otros responsables de tratamiento, se notifique esta supresión a los mismos.

En caso de que se acuerde que no procede practicar la supresión solicitada, se me comunique motivadamente a fin de, en su caso, reclamar ante la autoridad que corresponda.

### TRATAMENDUAREN XEDE DIREN DATUAK, ZEINTZUEK EZEREZTEKO ESKATZEN DUDAN / DATOS OBJETO DE TRATAMIENTO RESPECTO DE LOS QUE SOLICITO LA SUPRESIÓN

<sup>1</sup> NAN edo dokumentu baliakidea. Fotokopia aurkeztu behar da / DNI o documento equivalente. Adjuntar fotocopia.

<sup>2</sup> Aukerakoa / Opcional



**ESKAERA ARRAZOI HAUENGATIK EGITEN DA /  
LA SOLICITUD SE BASA EN LA CONCURRENCIA DE LA/S SIGUIENTE/S CAUSA/S:**

Datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak, bildu zirenean edo beste modu batez tratatu zirenean zeuden helburuen argitan.

Eskatzaileak bertan behera utzi badu tratamenduaren oinarrian dagoen adostasuna.

Eskatzaileak tratamenduaren aurka egiten badu, eta gainera ez badago tratamendua gauzatzeko beste arrazoi legitimorik.

Datu pertsonalen tratamendua legez kontra egin bada.

Datu pertsonalak ezereztu behar badira, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean ezarritako lege-betebehar baten indarrez.

Datu pertsonalak jaso badira informazioaren gizarteko zerbitzuen eskaintzaren ingurumarian (2016/679 (EB) Erregelamendua, apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez, 8. artikulua).

Los datos personales ya no sean necesarios en relación con los fines para los que fueron recogidos o tratados de otro modo.

La persona solicitante retira el consentimiento en que se basa el tratamiento

La persona solicitante se opone al tratamiento, no prevaleciendo otros motivos legítimos para el mismo.

Los datos personales han sido tratados ilícitamente.

Los datos personales deben suprimirse para el cumplimiento de una obligación legal establecida en el Derecho de la Unión o de los Estados miembros que se aplique al responsable del tratamiento.

Los datos personales se han obtenido en relación con la oferta de servicios de la sociedad de la información mencionados en el artículo 8 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos.

**JUSTIFIKATZEKO DOKUMENTAZIO / DOCUMENTACIÓN JUSTIFICATIVA**

**ESKUBIDEA TRATAMENDUAREN ARDURADUN HONEN AURREAN BALIATU NAHI DA /  
RESPONSABLE DEL TRATAMIENTO ANTE QUIEN SE EJERCITA EL DERECHO**

**Departamentua /**  
Departamento

**Zuzendaritza /**  
Dirección

**Tokia eta data /** Lugar y fecha

**Eskatzailearen sinadura /** Firma del solicitante



## INFORMAZIO OSAGARRIA

### I.– Jarraibideak, idatziarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioaz eta bete beharreko ereduaz

Dokumentu hau erabili ahal izango da datuak ezerezteko eskubidea gauzatu nahi den kasuan, eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean jasota dagoen egoeretakoren bat gertatzen denean.

Ezinbestekoa da NANaren edo baliokide den dokumentu baten fotokopia aurkeztea, identitatea egiaztatu eta zuzenbidean baliozkotzat har dadin. Ordezkaritzaren bidez jarduten baldin bada, aurrekoaz gain, ordezkararen NANA eta hori egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dira.

### II.– Prozedurazko betekizunak eskubidea gauzatzen duen pertsonarentzat.

Eskubidea eskatzen duen pertsonak zuzenean jo behar du bere datuak dituela uste duen edo badakien organora, departamentua eta zuzendaritza adierazita.

DBEOaren 17.1 artikuluan jasotako inguruabarrak gertatzen direla egiaztatzeko frogagiria aurkeztu behar da.

### III.– Prozedurazko betekizunak tratamenduaren arduradunarentzat.

Tratamenduaren arduraduna den unitateak eskatzaileari erantzun beharko dio eskaera jasotzen denetik gehienez ere hilabeteko epean, luzapena arrazoitua izan ezean.

Arduradunak datu pertsonalak ezerezteko obligazioa du Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 17. artikuluan jasotako inguruabarren bat gertatzen bada.

Ezerezteko eskaeraren arrazoa 17.1 artikuluko lehenengo bi kasuetariko bat denean (datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak, bildu zirenean edo beste modu batez tratatu zirenean zeuden helburuen argitan, edo eskatzaileak bertan behera utzi badu tratamenduaren oinarrian dagoen adostasuna, eta bestelako oinarri juridikorik ez badago), eskaera ezetsi egingo da tratamendua beharrezkoa baldin bada:

- a) adierazpen eta informazio askatasunaren eskubidea gauzatzeko;
- b) datuen tratamendua eskatzen duen legezko obligazio bat betetzeko, Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak hala ezartzen duelako, edo arduradunari eman zaizkion botere publikoak gauzatzeko edo interes publikoaren mesedetan egindako misio bat betetzeko;
- c) osasun publikoaren arloko interes publikoko arrazoiak direla eta, 2016/679 (EB) Erregelamenduak 9. artikuluan, 2. apartatuan, h) eta i) letretan, eta 3. apartatuan dioenaren arabera;

## INFORMACIÓN COMPLEMENTARIA

### I I.– Instrucciones para la cumplimentación del modelo y documentación a aportar junto al escrito

Este documento podrá ser utilizado para el supuesto en el que se quiera ejercitar el derecho de supresión, cuando concurra alguno de los supuestos contemplados en el Reglamento General de Protección de Datos.

Será necesario aportar fotocopia del D.N.I. o documento equivalente que acredite la identidad y sea considerado válido en derecho. En caso de que se actúe a través de representación deberá aportarse, además, DNI y documento acreditativo de la representación otorgada.

### II.– Requisitos del procedimiento para la persona que ejercita el derecho.

La persona solicitante del derecho debe dirigirse directamente al Órgano del que presume o tiene la certeza de que posee sus datos, señalando departamento y dirección.

En necesario adjuntar documentación justificativa que acredite la concurrencia de las circunstancias previstas en el artículo 17.1 del RGPD.

### III.– Requisitos del procedimiento para la persona responsable del tratamiento.

La unidad responsable del tratamiento deberá responder al o a la solicitante en el plazo máximo de un mes, a contar desde la recepción de la solicitud salvo prórroga motivada.

El responsable está obligado a suprimir los datos personales cuando concurra alguna de las circunstancias previstas en el art. 17 del RGPD.

Cuando la solicitud de supresión se funde en los dos primeros supuestos del artículo 17.1 (los datos personales ya no sean necesarios en relación con los fines para los que fueron recogidos o tratados de otro modo; o el interesado retire el consentimiento en que se basa el tratamiento, y este no se base en otro fundamento jurídico), la misma será denegada cuando el tratamiento sea necesario:

- a) para ejercer el derecho a la libertad de expresión e información;
- b) para el cumplimiento de una obligación legal que requiera el tratamiento de datos impuesta por el Derecho de la Unión o de los Estados miembros que se aplique al responsable del tratamiento, o para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable;
- c) por razones de interés público en el ámbito de la salud pública de conformidad con el artículo 9, apartado 2, letras h) e i), y apartado 3; del Reglamento (UE) 2016/679.



- d) interes publikoaren izenean artxibatzea, ikerketa zientifiko edo historikoa edo estatistika helburu duen tratamendua egiteko, 2016/679 (EB) Erregelamenduak, 89. artikuluan, 1. apartatuan, dioenaren arabera, 1. apartatu horretan adierazitako eskubideak tratamendu horren helburuak lortzea ezinezko bihurtu edo larri oztopatuko balu, edo
- e) erreklamazioak formulatzeko, gauzatzeko edo horietatik babesteko.

Datuak ezerezteak horiek blokeatzea ekarriko du, eta soilik administrazio publikoek, epaile eta auzitegiek erabili ahal izango dituzte, tratamenduaren ondorioz sortutako ardura posiblei erantzuteko, horiek preskribitzen diren artean. Epe hori igarotakoan, behin betiko ezabatuko dira.

Argi eta garbi baldin badago ez dagoela tratamenduaren ondoriozko ardura potentzialik, datuak fisikoki ezabatuko dira, salbuespen batekin: ezabatzea materialki ezinezkoa denean, arduradunak blokeatu egingo ditu datuak, horiek erabiltzea eta tratatzea ekiditeko.

2016/679 (EB) Erregelamenduak 17. artikuluan dioenaren arabera datu pertsonalik ezereztu baldin bada, tratamenduaren ardura duen unitateak horren berri emango die datu pertsonal horiek jakinarazi dizkien hartzaile guztiei, salbu ezinezkoa bada edo ahalegin neurrigabea eskatzen badu. Arduradunak hartzaile horien berri emango dio interesdunari, hala eskatzen badu.

#### IV.– Araudi aplikagarria:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), apirilaren 27koa, pertsona fisikoek babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez: 17. artikulua.

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa: 15., 93. eta 94. artikulua.

2/2004 Legea, otsailaren 25koa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa: 8. eta 9. artikulua.

308/2005 Dekretua, urriaren 18koa, zeinak garatzen baitu 2/2004 Legea, otsailaren 25koa, Datu Pertsonaleko Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa: 9. artikulua.

Diputatuen Kontseiluaren 2017ko urriaren 31ko Erabakia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Informazioaren Segurtasun Politika onestekoa.

- d) con fines de archivo en interés público, fines de investigación científica o histórica o fines estadísticos, de conformidad con el artículo 89, apartado 1 del Reglamento (UE) 2016/679, en la medida en que el derecho indicado en el apartado 1 pudiera hacer imposible u obstaculizar gravemente el logro de los objetivos de dicho tratamiento, o
- e) para la formulación, el ejercicio o la defensa de reclamaciones.

La supresión dará lugar al bloqueo de los datos conservándose únicamente a disposición de las Administraciones públicas, Jueces y Tribunales, para la atención de las posibles responsabilidades nacidas del tratamiento, durante el plazo de prescripción de éstas. Cumplido el citado plazo deberá procederse al borrado definitivo.

En los casos en los que claramente no existan potenciales responsabilidades nacidas del tratamiento, se procederá al borrado físico de los datos, excepto cuando la misma no sea materialmente posible, en cuyo caso la persona responsable procederá al bloqueo de los datos con el fin de impedir su utilización y tratamiento.

La unidad responsable del tratamiento comunicará cualquier supresión de datos personales efectuada con arreglo al artículo 17 del Reglamento (UE) 2016/679 a cada uno de los destinatarios a los que se hayan comunicado los datos personales, salvo que sea imposible o exija un esfuerzo desproporcionado. El responsable informará al interesado acerca de dichos destinatarios, si este así lo solicita.

#### IV.– Normativa de aplicación:

Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, artículo 17 y 19.

Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, artículos 15, 93 Y 94.

Ley 2/2004, de 25 de febrero, de ficheros de datos de carácter personal y de creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, artículo 8 y 9.

Decreto 308/2005, de 18 de octubre, por el que se desarrolla la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de ficheros de datos de carácter personal de titularidad pública y de creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, artículo 9.

Acuerdo, de 31 de octubre de 2017, del Consejo de Gobierno Foral por el que se aprueba la Política de Seguridad de la Información de la Diputación Foral de Gipuzkoa.



#### **V.- Erreklamazioak (eskubideen tutoretza):**

Eskatzaileak uste badu ez zaiola behar bezala ahalbidetu datuak ezerezteko duen eskubidea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (DBEB) aurkez dezake erreklamazioa, horrek eskatzailearen eskubideen tutoretza-prozedura abiaraz dezan.

Erreklamazioa hemen aurkeztuko da: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3. - 01008 Vitoria-Gasteiz - Tel. 945 91 62 39 - Fax. 945 01 62 31 [avpd@avpd.eus](mailto:avpd@avpd.eus) - [www.avpd.euskadi.eus](http://www.avpd.euskadi.eus)).

DBEBn erreklamazioa aurkeztu aurretik, interesdunak GFAko datuen babeserako ordezkariarengana jo dezake ([dbo@gipuzkoa.eus](mailto:dbo@gipuzkoa.eus)).

#### **VI.- Datuak babesteko klausula**

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 13. artikuluan xedatutakoa betez, datu pertsonalen tratamenduaren berri ematen dizugu eskubide hori gauzatzeko tramitean.

a) Zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna honako hau da: Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zuzendaritza Nagusia (Gipuzkoa plaza, z.g., 20004-Donostia).

b) Datuen Babeseko ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke helbide elektronikoa honetan: [dbo@gipuzkoa.eus](mailto:dbo@gipuzkoa.eus).

c) Ematen dizkiguzun datu pertsonalak ezinbestekoak zaizkigu erregistroan jasota geratzeko, organo hartzaileari bidaltzeko eta eskaera behar bezala tramitatzeko.

d) Tratamendua ezinbestekoa da Datu Pertsonalak Babesteko Erregelamendu Orokorretik eratorritako legezkio betebeharrak betetzeko.

e) Ez da aurreikusten horiek hirugarrenei lagatzea edo komunikatzea.

f) Ematen dizkiguzun datu pertsonalak gordeko dira soil-soilik horien bilketa eragin duen xedeetarako, eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen ardurak posibleak zehazteko.

g) Bestelako argibiderik behar izanez gero: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/pribatutasuna>

#### **V.- Reclamaciones (Tutela de derechos):**

Si el o la solicitante entiende que no se le ha facilitado correctamente el derecho de supresión de sus datos, puede reclamar ante la Agencia Vasca de Protección de Datos (AVPD) para que inicie un procedimiento de tutela de sus derechos.

La reclamación se dirigirá a la Agencia Vasca de Protección de Datos (c/ Beato Tomás de Zumárraga, 71, 3º - 01008 Vitoria-Gasteiz - Tel. 945 01 62 30 - Fax. 945 01 62 31 [avpd@avpd.eus](mailto:avpd@avpd.eus) - [www.avpd.euskadi.eus](http://www.avpd.euskadi.eus)).

El interesado puede, con carácter previo a la presentación de una reclamación ante la AVPD, dirigirse al delegado de protección de datos de la DFG ([dbo@gipuzkoa.eus](mailto:dbo@gipuzkoa.eus)).

#### **VI.- Cláusula de protección de datos**

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 13 del Reglamento General de Protección de Datos, le informamos acerca del tratamiento de los datos personales en el trámite de ejercicio de este derecho.

a) La responsable del tratamiento de sus datos personales es la Dirección General de Servicios e Innovación y Transformación de la Administración, Plaza Gipuzkoa s/n, 20004-San Sebastián.

b) Podrá contactar con el Delegado de Protección de Datos en la dirección electrónica [dbo@gipuzkoa.eus](mailto:dbo@gipuzkoa.eus).

c) Los datos personales que nos proporciona son necesarios para la constancia registral, su remisión al órgano destinatario y la correspondiente tramitación de la solicitud.

d) El tratamiento es necesario para el cumplimiento de la obligación legal que se deriva del Reglamento General de Protección de Datos Personales.

e) No está prevista su cesión o comunicación a terceros.

f) Los datos personales que nos aporta se conservarán durante el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y para determinar las posibles responsabilidades que se pudieran derivar de dicha finalidad y del tratamiento de los datos.

g) Más información: <https://www.gipuzkoa.eus/es/privacidad>